


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA
ZUZENBIDEKO FAKULTATEA**

**ZUZENBIDE GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA**

EMAKUMEZKOEN SALEROSKETA ETA
PROSTITUZIOA:

AZTERKETA KRITIKOA.

Egilea: Egilior Ellakuria, Uxue

Zuzendaria: Landa, Jon Mirena

2020 - 2021 ikasturtea

uxue.egilior@gmail.com

AURKIBIDEA

I. SARRERA	1
II. KONTZEPTUZKO HURBILKETA	3
1. GIZAKION SALEROSKETA ETA BERE LEGEZ KONTRAKO TRAFIKOA	4
A. GIZAKION SALEROSKETA	4
B. GIZAKION LEGEZ KONTRAKO TRAFIKOA, GIZAKION SALEROSKETAREKIN ALDERATUZ	6
2. EMAKUMEEN SALEROSKETA, SEXU ESPLOTAZIOARI ERREFERENTZIA BEREZIA EGINEZ	9
A. EMAKUMEZKOEN SALEROSKETA	10
B. SEXU ESPLOTAZIOA	14
a) HEZIKETA DESBERDINAK	14
i. EMAKUMEZKOAK	15
ii. GIZONEZKOAK	15
b) GENERO-INDARKERIA	16
3. PROSTITUZIOA	18
III. LEGEDIAREN GARAPENA	20
1. LEGEDIAREN GARAPENA MUNDU MAILAN	20
2. LEGEDIAREN GARAPENA EUROPA MAILAN	27
3. ESPAINIAKO LEGEDIA	29
IV. PROSTITUZIOARI BURUZKO EREDU IDEOLOGIKO DESBERDINAK ETA HORREK SEXU-ESPLOTAZIORAKO EMAKUMEZKOEN SALEROSKETAN PRAKTIKAN IZAN DEZAKEEN EFEKTUA	30
1. ARAUZKO SISTEMA	31
2. SISTEMA ABOLIZIONISTA	32
3. SISTEMA DEBEKATZAILEA	34
4. HARTUTAKO POSTURA	35
V. ONDORIOAK	35
ERANSKINAK	38
ERREFERENTZIA ZERRENDA	39

En la época colonial, eran negros, se transportaban con grilletes, para ser sometidos al antojo de su amo; en la actualidad son mujeres trasladadas con engaño para ser explotadas sexualmente al servicio no sólo de un dueño sino de todos los hombres que pagan por abusar de su cuerpo, su destino y su dignidad. En el siglo XIX se acabó con aquella esclavitud medieval que durante siglos fue algo normal ¿cuando terminaremos con esta ignominia contra las mujeres?

I. SARRERA

Ondoren garatuko den lan honetan, emakumezkoen salerosketa problematikan zentratuko da. Horretarako, era guztietako aipamenak egingo dira gizakion salerosketari, sexu-esplotazioari erreparatuz. Horrek, ezinbestean, prostituzioari buruz hitz egitera eramango du, zuzenean loturik baitago. Aldi berean, emakumeen aurkako indarkeria beharrez aipatuko da, arazoaren nondik norakoak ulertu ahal izateko. Horretarako, Nazioarteko Zigor Zuzenbide Publikoa eta Giza Eskubideak erreferentziatzat hartuko dira gai honen inguruko analisi juridikoa aurrera eraman ahal izateko.

Nahiz eta zaila den arazoren tamaina neurtzea, Nazioarteko Migrazioako Erakundeak egindako estimazioaren arabera, lau milioi emakume eta neska esplotatzen dira, prostituzioan edota ezkontzera behartzeko helburuaz. Honek eramaten du 7.000 eta 10.000 milioi dolar arteko negozio neurria duen aktibitateaz hitz egitera¹. Europan, Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) estimatzen du 140.000 trata biktima daudela, 2.500 milioira euroko negozio neurria iristen dena².

Aurkitzen den erronka da, gizakion salerosketaren inguruko ezjakintasuna dela eta, gizartearen zati handi batek, ez duela prostituzioa sexu-esplotazioarekin ezta emakumezkoen salerosketarekin lotzen³. Horregatik, salerosketaren biktima diren emakume prostituitu kopuruaren inguruan kontzientzia hedatzea bilatzen da lan honetan, prostituzioa ukatu edota ezabatzeak dakarren abantailak erakusteko. Modu honetan, prostituzioaren erregulazioa defendatzearen ideari indarra kentzea bilatzen da, oso ohikoa baita buruzagi politikoei entzutea prostituzioa arautu beharko litzatekeela emakume horiek lan-eskubideak izan ditzaten⁴.

¹ Nazioarteko Migrazioako Erakundeak, migrazio problematiketarako 1951an sortutako nazioarteko erakundea da.

² Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE), lan eta lan-harremanekin zerikusia duten kontuetaz arduratzen den Nazio Batuetako organismoa da.

³ RODRÍGUEZ, Marcela. *Tramas de la prostitución y la trata con fines de explotación sexual*. Documentos de Trabajo, 2012, 84. zbk. Ikus 10.-14. or.

⁴ HEIM, Daniela. *Más allá del disenso. Los derechos humanos de las mujeres en contextos de prostitución*. 2012. 323-324. orr.

Baina, ez legoke lekuz kanpo egongo, maila juridiko-etiko batetik begiratzuz, emakume horien lan-egoera arautzea, emakumeen eta ondorioz, gizartearen zenbait ondasun juridiko zalantzan jarri gabe, esate baterako, emakumeen osasuna eta askatasuna. Beraz, erronka agertzen da, haien gorputza zein beraien sexu-askatasuna, lan-merkatuaren parte izatea legitimoa den planteatzean.

Izan ere, zenbait estudio egindako kalkuluen arabera, prostituzioa jarduten duten zazpi emakumeetatik batek gizakion salerosketa moduan egiten du⁵. Beraz, gaur egun, gai eztabaidatua izatea, maila politiko zein sozialetik begiratuta, ulergarria da. Honen harira, aipagarria da, zenbait feminismo-korronte kontrajarriak aurkitzea. Alde batetik, prostituzioaren alde daudenak, Virginie Despentes⁶-en Teoria King Kong⁷ adibidez. Bestetik, sexu esplotazio eta prostituzioa ukatzen dutenak, emakumeen eskubideak urratzen dituztelako, prostituzioa behartua zein borondatezkoa izan⁸.

Gauzak horrela, gizakion, edo zehatzago, emakumezkoenean salerosketa gaia abordatu nahi da, hau prostituzioarekin estu loturik dagoela jakinarazteko eta, horrela, debekatzeko behararen kontzientzia zabal dadin maila sozial eta politikoan. Bestela esanda, prostituzioa ilegaltzat jo, gaur egun legez kanpo baitago, legezko hutsunea utziz eta ondorioz, erabateko babesgabetasuna ezarriz.

Laburbilduz, lan honen helburua izango da, prostituzio eta emakumezkoen salerosketaren lotura estua azaleratzea, eta horrez gain, lehenengoaren ezabaketa abordatzea, bigarrenaren murrizketa eragin dadin⁹. Horretarako, prostituzioarekin

⁵ UNITED NATIONS OFFICE ON DRUGS AND CRIME; VIENNA INTERNATIONAL CTR; AUSTRIA. Globalization of Crime: A Transnational Organized Crime Threat Assessment. 2010.

⁶ Virginie Despentes *King-Kong* teoriaren sortzailea da.

⁷ DESPENTES, Virginie. *Teoría king kong*. Literatura Random House, 2018.

⁸ GURNANI CHATANI, Dimple-Shyam. *Un acercamiento al modelo abolicionista de la prostitución*. 2018. Ikus 30.-34. or.

⁹ VIDAL-BENEYTO, José. *Prostitución y trata de blancas*. EL PAIS Egunkaria, 2003.

amaitzeko estrategiak planteatuko dira, horrek emakumeen salerosketan ondorioren bat (faboratzea edo minimizatzea) izan dezakeen aztertzeke helburuaz¹⁰.

II. KONTZEPTUZKO HURBILKETA

XIX mende bukaeran eta XX mendean zehar (1899-1990), herrialde kolonialista nagusiek Bruselaz adosten dute esklabutzarekin bukatzeko neurriak aplikatzea. Hala ere, gizakion salerosketa XXI. mendeko esklabutza mota bat dela esan daiteke. Honen harira, 2000an kooperazio internazionala bermatzen duen hitzarmena aprobatazen da, gizakion salerosketaren mundu-mailako tipifikazio penal eta erlacionatutako delituetaz hitz egiten duena¹¹.

Dudarik gabe, “diruarekin gauza asko erosi daitezke, baina ezin litzateke inoiz ez, beste gizaki bat erosi”¹². Delitu honen biktimak ahultasun egoeran dauden pertsonak dira, bereziki emakumeak, haurrak eta egoera fisiko edo ekonomiko zailetan dauden gizonak, diskriminaziora ohituta daudenak eta erresistentziarik jartzen ez dutenak.

Delitu hau burutzen den bakoitzean, pertsona bati dagozkion giza eskubide guztiak urratu egiten zaizkio eta, horrenbestez, haren askatasuna eta duintasunaz gain, osotasun fisiko eta emozionala ere galbideratzen zaizkio¹³.

Gainera, nazioarteko kezka nagusietako bat bihurtu da, globalizazioari lotutako giza eskubideen urraketa larrienetarikoa baita. Beste alde batetik, mundu osoan diru gehien mugitzen duen trafikoa da, droga eta armen salerosketaren atzetik¹⁴. Honen

¹⁰ MORENO, Elena Boza. *La prostitución en España: el limbo de la alegalidad. Estudios Penales y Criminológicos*, 2019, vol. 39. Ikus 222.-238. or.

¹¹ VILLALPANDO, Waldo. *La Esclavitud, el crimen que nunca desapareció: la trata de personas en la legislación internacional*. Invenio: Revista de investigación académica, 2011, 27. zenbakia. Ikus 13.-26. or.

¹² John Kerry, AEBetako idazkaria, Etxe Zurian hitzaldia eman zuen “White House Forum on Borroking Human Trafficking in Supply Chains” ekitaldian, 2015eko urtarrilaren 29an.

¹³ ÚBEDA-PORTUGUÉS, José Escribano. *Terrorismo, narcotráfico, blanqueo de capitales, trata de personas, tráfico ilícito de migrantes, tráfico ilícito de armas: Lucha global contra la delincuencia organizada transnacional*. Liber Factory, 2009. 80.-89. or.

¹⁴ MÉDICOS Y PACIENTES. *La trata de personas, tercer negocio criminal más lucrativo en la actualidad, después del narcotráfico y el tráfico de armas*. medicosypacientes.com

harira, Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuaren (OMZ) azken txostenak¹⁵ dioen gisa, gizakion salerosketa eta etorkinen trafikoa 35.000 bilioi euro mugitzen dituzte urtero.

Normalean, pertsonen salerosketa eta prostituzioa automatikoki parekatzen dira, eta bi fenomenoaren artean harreman estua egon arren, beharrezkoa da horietako bakoitza kontzeptualki mugatzea. Beraz, ondoren desberdinduko dira azterketa honetan agertzen diren fenomeno desberdinak, ondoren emakumezkoen salerosketa, sexu esplotazioa eta prostituzioa behar bezala ulertu ahal izateko.

1. GIZAKION SALEROSKETA ETA BERE LEGEZ KONTRAKO TRAFIKOA

Era berean, askotan, gobernuek eta erakundeek adierazpen ugari erabili dituzte egoera bera deskribatzeko, edo, alderantziz, termino berdinak erabili dira egoera desberdinak deskribatzeko. Pertsonen salerosketari eta pertsonen legez kanpoko trafikoari dagokienez, honelako terminoak¹⁶ erabili dira: “atzerritarren trafikoa”, “atzerritarren salerosketa”, “migratzaile irregularren trafikoa”, “giza trafikoa”, “pertsonen trafikoa”, “gizakien trafikoa”, “migratzaileen trafikoa” edo “giza salgaien trafikoa”.

Arrazoi honengatik, jarraian gizakion salerosketaren kontzeptua mugatuko da, izenetatik aparte, errealitatea ulertu ahal izateko.

A. GIZAKION SALEROSKETA

Gaur egun, pertsonen salerosketaren biktimak ez dira emakume zuriak soilik; izan ere, gaur egun, pertsonen salerosketaz ari garenean, edozein gizon, emakume edo

webgunea. 2017.<http://www.medicosypacientes.com/articulo/la-trata-de-personas-tercer-negocio-criminal-mas-lucrativo-en-la-actualidad-despues-> (Azken sarrera 2021ko maiatzak 26).

¹⁵ “Gizakien salerosketa. Jendearekiko merkataritzaren negozioa”, uztailaren 30ean ospatzen den Salerosketaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta argitaratua.

¹⁶ LÓPEZ SALA, Ana María; GARCÍA CUESTA, Sara (Dir.). *Poblaciones-mercancia: Tráfico y Trata de Mujeres en España. Memoria de investigación*. Proyectos de Investigación del Instituto de la Mujer, 2010eko apirilaren 30an, Ikus 13. or.

haur salerosketaren biktimak izan daitezke, hainbat ustiapen-helburutarako (sexualki esplotatzeko, lanerako, eskean ibiltzeko, organoak ateratzeko, etab.)¹⁷.

Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE)¹⁸, derrigorrezko lana eta gizakien salerosketa mundu guztian **21 milioi pertsona** baino gehiagori eraso egiten duten delituzko praktikak direla salatzen du, eta 150.000 milioi dolar baino gehiagoko irabaziak sorrarazten dituena. Gainera, nazioarteko komunitate osoan delitu horiek, giza eskubideen urraketa sistematikoa direla onartzen ez direnez, delitua indarrean jarraitzen du, eta biderkatzen doa.¹⁹

*Palermoko Protokoloaren*²⁰ 3. artikuluan, gizakion salerosketa hiru elementu biltzen dituen fenomeno gisa definitzen da:

- Lehenik, pertsonen mugimenduarekin zerikusia duten zenbait ekintza, sistema konplexu baten barruan, betiere hainbat eragileri egotzi ahal zaienean (erakartzea, garraiatzea, lekualdatzea edo harrera).
- Bigarrenik, hertsatzea edota botere-abusua eragiten duten mekanismoak erabiltzea, aukeratzeko askatasuna mugatzen dutenak (mehatxua edo bortxaketa, bahiketa, iruzurra, engainua, botere-abusua edo zaurgarritasun-egoera bat, edo beste norbaiten gaineko aginpidea duen pertsona baten adostasuna lortzeko ordainketak edo onurak ematea edo jasotzea).
- Hirugarrenik, «ustiatze-asmoa»²¹.

¹⁷ WILSON, Mariblanca Staff. Recorrido histórico sobre la trata de personas. *Revista de PADH*, 2013.

¹⁸ Nazioarteko Lan Erakundeak (NLE, OIT gazteleraz), 1919an sortutako Nazio Batuen barneko erakunde autonomoa da, lan-baldintzak eta langileen bizi-maila hobetzeko. Nazioarteko arauak ezartzen ditu, erakundearen parte hartzen duten nazioek izenpetzen dituzten hitzarmenen bidez eta Genevan du egoitza.

¹⁹ DE CRISTÓFORIS, Nadia Andrea. *Inmigrantes y colonos en la provincia de Buenos Aires: una mirada de largo plazo (siglos XIX-XXI)*. Universidad de Buenos Aires. Facultad de Filosofía y Letras, 2016. Ikus 87.-110. or.

²⁰ Pertsonen Salerosketa Prebenitu, Erreprimitu eta Zehatzeko Protokoloa, bereziki emakumeena eta haurrena, Delinkuentzia Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duena. Palermon, Italia, 2000 urtean.

Ondoren, honako hau adierazten du: «Ustiapen horrek, gutxienez, beste inoren prostituzioaren edo sexu-esplotaziorako beste modu batzuen ustiapena, lan edo zerbitzu behartuak, esklabotza edo esklabotzaren, zortasunaren edo organo-erazketaren antzeko praktikak barne hartuko ditu»²².

Gizakion salerosketan, delitugileei delitua egitera bultzatzen dieten arrazoia **irabazi ekonomikoa** da (prostituzioan, lan behartuetan edo bestelako abusu-moduetan biktimak ustiatzearen emaitza).

Giza salerosketen korrante gehienak, batez ere, Ekialde Ertaineko, Mendebaldeko Europako eta Ipar Amerikako herrialde aberatsetan hautematen dira. Eta, sarritan, “Hego Globalaren” biktimei eragiten diete; batez ere, Ekialdeko eta Hegoaldeko Asiari eta Saharaz hegoaldeko Afrikari²³.

Estatistiken arabera, helburuko herrialdeko aberastasunaren (BPG) eta beste eskualde batzuetatik hara eramandako salerosketaren biktimen proportzioaren arteko korrelazioa erakusten dute²⁴. Herrialde aberatsenek hainbat jatorritako biktimak erakartzen dituzte, baita beste kontinente batzuetakoak ere; aberatsagoak ez diren herrialdeetan, berriz, batez ere, nazioko edo azpieskualdeetako salerosketa-korrontek ikusten dira.

Hala ere, kontuan hartu beharra dago gizakion salerosketaren delituak munduko eskualde guztietako ia herrialde guztiei eragiten dietela. 2012. urtean, mundu osoko 124 herrialdetan, 152 herrialdetako biktimak identifikatu zituzten²⁵. Gainera, gizakion salerosketaren korrontek mundua zeharkatzen dute, hau da, antzemandako biktimen %5en jatorrizko herrialdea eta helmugakoa lotzen dituzten irudimenezko lerroen bidez.

²¹ MAPELLI CAFFARENA, Borja. *La trata de personas. Anuario de derecho penal y ciencias penales*, 65 (1). zenbakia, 2012, 25.-62. or.

²² Palermoko Protokoloaren definizioaren azterketa hurrengo iturriekin: Pérez Alonso 2008, 173.-188. or.; Gallagher 2010, 25.-42. or.; eta modu orokorragoan azterturik: Rodríguez López 2016.

²³ Lehenengo eranskina. UNODC, *Global Report on Trafficking in Persons*, 2016, Nueva York.

²⁴ UNODC, *Informe Mundial sobre la Trata de Personas*, Resumen Ejecutivo, 2014.

²⁵ UNODC, *Global Report on Trafficking in Persons*, 2018, Nueva York.

Horren guztiaren aurrean, FARRk²⁶ behin eta berriz dio pobrezia salerosketarako indar bultzatzailetzat hartu behar dela, eta honako hau dio:

“Gizakion salerosketa pobreziarekin nahitaez lotutako dago. Pribazio eta zailtasun ekonomikoak galentzen diren une orotan, txiro eta nahiko ernegatuak dauden pertsonak egongo dira, iruzurreko eskemetan parte hartzeko prest egongo direnak, hauek baitira giza salerosketa munduan sartzeko biderik ohikoenkak”²⁷.

Honela, gizakion salerosketa ulertzeko beharrezkoak diren faktoreak aurkeztu dira. Baina, ez da gizakion salerosketa gizakion legez kontrako trafikoarekin nahastu behar. Nahiz eta, ulertu daitekeen gizakion salerosketa migrazio-prozesu normalaren desbideratze bat dela, ez dira gauza bera. Jarraian azalduko dira hauen arteko ezberdintasunak, kontzeptuak bereizi eta argitzeko asmoz.

B. GIZAKION LEGEZ KONTRAKO TRAFIKOA, GIZAKION SALEROSKETAREKIN ALDERATUZ.

Lurreko, Itsasoko eta Aireko Migratzaileen Legez Kanpoko Trafikoaren aurkako Protokoloaren²⁸ 3. artikulua - delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duena - arabera, honela ulertuko da migratzaileen legez kanpoko trafikoa: *“persona hori nazionala edo egoiliar iraunkorra ez den estatu batean legez kanpo sartzea erraztea, zuzenean edo zeharka finantza-onura bat edo ordena materialeko beste onura bat lortzeko”*.

²⁶ Kathryn Farr idazle amerikarra da, *“Tráfico sexual: el mercado mundial de mujeres y niños (problemas sociales contemporáneos)”* liburuaren idazlea. *Habitat for Humanity Greater Orlando & Osceola County* erakundearen lan egiten du garapen-ofizial gisa.

²⁷ FARR, K.: *Sex Traffickin*. Baieztapen hori egiteko, autorea Nazioarteko garapenerako AEBetako Agentzian oinarritzen da.

²⁸ OFICINA DE NACIONES UNIDAS CONTRA LA DROGA Y EL DELITO. Art. 3 del “Protocolo contra el tráfico ilícito de migrantes por tierra, mar y aire, que complementa la Convención de Naciones Unidas contra la Delincuencia Organizada Transnacional” de 15 de noviembre de 2000. Convención de las Naciones Unidas contra la delincuencia organizada transnacional y sus protocolos. Nueva York, 2004. 57. or.

Gizakion salerosketarekin konparatuz, hurrengo ezaugarriak desberdinduko dituzte²⁹:

- Migratzaileak zuzeneko eta borondatezko harremana ezartzen du trafikatzailearekin; hau da, ez dago akatsik onespenean. Salerosketetan, kontaktua engainuz, abusuz edota hertsatuz gertatzen da. Baimena akastuna da.
- Muga bat edo muga bat baino gehiago gurutzatzea dakar beti. Herrialde baten barruan edo kanpoan izan daiteke tratamendua; baliteke ere mugak ez gurutzatzea.
- Dirua lekualdatzearen berezko faktorea da. Salerosketan, lekuz aldatzeko dirua ez da faktore garrantzitsua; bai, ordea, pertsonari zor ekonomiko bat jartzea, eta zor hori ustiatzera behartzea.
- Trafikatzailearen eta migratzailearen arteko harremana helmugara iristerakoan amaitzen da. Tratamenduan, tratulariaren eta biktimaren arteko harremana luzeagoa da; helmugara iristean, ustiapena hasten edo jarraitzen du.
- Trafikoak, batez ere, gizonezkoei eragiten die; tratan, aldiz, emakumeei eta haurrei.
- Trafikoan, garraiatzean, osasun-arrisku handiagoak daude; tratamenduan, arrisku horiek minimizatzen dira, baina inpaktu fisiko eta psikologikoa oso luzea da.
- Trafikoak estatuaren, duintasunaren eta pertsonaren eskubideen aurkako delitua dakar. Tratan, pertsonaren aurkako delitu indibiduala da.

Laburbilduz, hiru kontzeptu nagusitan datza bereizketa: adostasuna, ustiapena eta transnazionalitatea.

Nahikoa da nazioarteko salerosketa-sareek erabiltzen dituzten ibilbideak behatzea. Orduan, pertsonen salerosketaren krimenaren aurrean, beste arrisku-faktore bat agertzen da, giza mugikortasunerako eskubidea erabiltzea. Esate baterako, Herritartasuna egiaztatzen duen edozein dokumentu kentzen zaie, gehien behar duten egoeretan, beren herrialdeetatik ateratzen ari baitira. Bere askatasuna mugatuta, giltzapetuta eta zainduta, ganadua hiltegiara eraman aurretik zelan zaintzen den.

²⁹ *Pertsonen oinarritzko kontuak*. Mexikoko Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearena, emakumearen jaiotza-institutua, Mexikoko Migrazioen Institutu Nazionala eta AEBetako Emakumeen Nazioarteko Batzordea eta Amerikako Estatuaren Erakundearena landua.

Behin argituta gizakion salerosketa zentzu zabalean aurkeztu ondoren eta gizakion legez kontrako trafikoaren gaia sakondu eta gero, horien arteko desberdintasunak azaleratuz, emakumeen salerosketaren ideia zehaztuko da.

2. EMAKUMEEN SALEROSKETA, SEXU ESPLOTAZIOARI ERREFERENTZIA BEREZIA EGINEZ

XIX. mendearen amaieran, emakumezkoen salerosketa terminoa erabiltzen da Europa, Asia, Afrika eta Amerikara heltzen ziren, sexu-esplotazio helburuetarako eki-europarreko emakumeei buruz hitz egiteko; izan ere, emakume zuriak baino ez dira, eta, hala, emakume beltzen trafikotik bereiz zitezkeen.

Beste alde batetik, esan beharra dago, gaztelaniaz erabiltzen den “trata de blancas” terminoa guztiz anakronikoa dela, hainbat erakunde sarritan azpimarratu duten bezala (*Accem* erakunde³⁰, adibidez). Kontzeptu hori erabiltzean, hainbat konnotazio arrazista dituen kontzeptua erabiltzen da, batez ere Europatik eta Ipar Amerikatik zetozen emakume zurien esplotazioa soilik hartzen baitute garrantzitsutzat. Horregatik, egokiagoa izango litzateke “trata de personas” edo “trata de seres humanos” kontzeptuak erabiltzen badira, gizakion salerosketa euskaraz, hain zuzen ere.

Emakumezkoen salerosketari buruz hitz egitean, imagina daiteke lehenengo gauza, beharbada, emakume baten bahiketa eta tortura fisiko, psikologiko eta sexuala delitugile-sare antolatu batek egitea da. Hala ere, kontzeptu horrek esplotazio zabalagoak gain hartzen ditu.

SKROBANEK³¹ek adierazten duenez, “ez da egintza bakar bat, baizik eta prozesu bat, zeinaren bidez emakumeak, indarra eta hertsapena erabiliz, egoera baliagarri baten mende jartzen baitira, irtenbiderik ez dutela uste baitute”³². Horregatik,

³⁰ *Accem* Espainiako irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta errefuxiatuei, migratzaileei eta gizarteaz baztertuak izateko arriskuan daudenei laguntzen espezializatuta dago.

³¹ Siriporn Skroban, Zientzia Politikoetan doktorea, Bangkokeko Foundation for Women delakoari lotuta dago, eta emakumeen eskubideak defendatzeko nazioarteko foro askotan parte hartzen du.

³² SKROBANEK, Siriporn; BOONPAKDI, Nattaya; JANTHAKEERO, Chutima. *Tráfico de*

autoreak azpimarratzen du Emakumeen Salerosketa kontzeptua zabaldu egin beharko litzatekeela, eta sedukzio eta garraio egintzak ere sartu beharko liratekeela (tranpa, promesa engainagarriak edo identitate faltsuak erabiliz). Beraz, premiazkoa da hori identifikatzea eta berekin dakarren indarkeria, hertsapena eta engainua osatzen duten osagaiak legez kontrakoak direla adieraztea.

Hala ere, jarraian, emakumezkoen salerosketa zentzu hertsian landuko da, sexu esplotazioarekiko duen lotura estua agerian uzteko asmoz.

A. EMAKUMEZKOEN SALEROSKETA

Ia mende erditik aurrera, Gayle Rubin³³ teoria feministak testu bat idatzi zuen, klasiko feminista bat osatuko zuena: “Emakumeen trafikoa. Sexuaren “ekonomia politikoari” buruzko oharra. Bertan, objektibotasunaren genealogiaren aztarnak aurkituko ditugu, Lévi-Strauss³⁴-ek egindako ahaidetasunaren teoria aztertzen duenean:

“Emakumezkoen salerosketaren adibide etnografiko eta historiak aurkitzea ez da zaila. Emakumeak ezkontzarako, gudatan bahituak, mesedeengatik trukatuak, tributu moduan bidaliak, hartu-emandakoak, erosiak eta salduak izaten dira. Mundu “primitiboa-ren” barruan egoteaz gain, praktika hauek gero eta gehiago nabarmentzen doaz eta gizarte zibilizatuetan merkaturatzen dira (...) Emakumezkoak, transakzio objektu bilakatzen dira esklabu, jopu eta prostituta moduan, baina baita solik emakume moduan”.
(Rubin, 1975/1986, 111)

Beraz, emakume horiei giza bizitza kendu zaie eta lan- edo sexu-esplotaziorako edo bietarako objektu/salgai bihurtu dira, beraien oinarrizko giza eskubideak indarrez ukatuz, beldurraren, mehatxuaren, hertsapenaren, indarkeriaren eta torturaren bidez.

Emakumeen salerosketa eta horren ondoriozko hazkundera eragiten dituzten arrazoi ohikoenak makro sozialak dira, eta biktimen jatorrizko herrialdeetako pobrezia

mujeres: realidades humanas en el negocio internacional del sexo. Narcea Ediciones, 1999.

³³ Gayle S. Rubin Estatu Batuetako kultura-antropologoa da, nahiz eta ezagunagoa izan sexuari eta generoari buruzko politikan eragina duen aktibista eta teoriko gisa.

³⁴ Claude Lévi-Strauss, antropologoa, filosofoa eta etnologo frantziarra izan zen, XX. mendearen bigarren erdian bere diziplinako figura handienetakoa izan zen.

estrukturalarekin lotuta daude. Herrialde horiek biziraupen-baldintza hobekak bilatzen dituzte –bai materiala, bai psikikoa–³⁵. Hala ere, biktimen onespenez ez duten kasu asko daude, kultura- edo gizarte-faktoreengatik³⁶.

Aldi berean, immigrazio-kasuak gertatzen dira barne-gatazketatik ihes egiteko, salerosketa-sareei eskulan baliagarria ematen dietelako. Kontuan hartu behar da, halaber, helmugako herrialdeetan merkatuko legeak direla nagusi; sexu-merkataritzaren eskaintzari eta eskaerari buruzko legea³⁷.

Beraz, alde batetik, eskaintza (migrazio-mugimenduak erakartzen ditu, lan-aukerak eta bizitza-hobekuntzak bilatzeko); bestetik, emigrazioa bultzatzen duen eskaera, jatorrizko herrialdeko egoera ekonomiko, sozial, politiko eta kultural ahulen ondorioz³⁸. Hain zuzen ere, autore batzuek diote garrantzitsua dela migrazioa gizarte-mugikortasuneko proiektu gisa hartzea³⁹. AEBko Estatuaren Saileko Pertsonen Salerosketari buruzko txosten globalak hau dio:

“Gizakion salerosketaren arazoak konplexuak dira eta maiz, elkar

³⁵ SKROBANEK, J.: *Tráfico de Mujeres*. CACHO, Lydia. *Esclavas del poder: un viaje al corazón de la trata sexual de mujeres y niñas en el mundo*. Debolsillo, 2015; CORRIN, C.: *Transitional Road for Trafficking. Analysing trafficking in women from and through central and Eastern Europe*. Europe – Asia Studies; VAZ CABRAL, G. : *La Traite des êtres humains*; KARA, S.: *Tráfico Sexual. El negocio de la esclavitud moderna*.

³⁶ Horri buruzko ikerketa bat egin du L. Cachok Vietnam, Laos Kanbodian eta Thailandian, beren familiek saldutako neskei buruz, bai arazo kulturalengatik, bai miseriatik urrun bizi-baldintza hobekak izango dituztela uste dutelako, eta inguru horretako eremuan baliabiderik ez dutelako. Ikusi: CACHO, L.: *Esclavas del poder*; SKROBANEK, J.: *Trafico de Mujeres*; KARA, S.: *Tráfico Sexual*.

³⁷ AMBITE, E. M.: *Tráfico y explotación sexual de mujeres inmigrantes*.

³⁸ Nazio Batuek behin eta berriz adierazten dute “pobrezia, langabezia, aukera sozioekonomikorik eza, generoan oinarritutako indarkeria, bereizkeria eta bazterkeria direla pertsona zaurgarriak salerosketan jartzen dituzten faktoreetako batzuk.” A/RES/64/293 2010eko abuztuaren 12a, 64. bilkura-aldia. 64/293 Ebazpena, Pertsonen salerosketari aurre egiteko Nazio Batuen Munduko Ekintza Plana.

³⁹ PISCITELLI, A.: *Sujeição ou subversão?: MIGRANTES BRASILEIRAS NA INDÚSTRIA DO SEXO NA ESPANH*, Uberlandia, 2006. 13.-16. or.

errefortzatzan dira. Giza salerosketa mundu-mailako merkatu baten ikuspuntutik kontuan hartzen bada, biktimek eskaintza eratzen dute eta kometzio sexualaren enplagaitzaile abusibo edo esplotatzailak (erosle sexual ere deituak) eskaria osatzen dute. Nahiz eta lan behartuen produktuen bezeroei eskariaren konponente bezala kontsideratu daitezkeen, kontsumitzaile hauek sarritan ez dute ezagutzen esklabutzan duten partaidetza. Sexu erosleak implikazioa handiagoa dute salerosketa sexualaren biktimen tratu txarretan, horregatik, logikoa da, prostituzio eta gizakion salerosketaren arteko erlazioaren inguruan hezi behar dela ondorioztatzea⁴⁰.

Baina zeintzuk dira salerosketaren krimenaren biktima horiek? Nahiz eta gutako edonor arriskuan egon egoera jakin batzuetan, emakume tratatuak ez dira aberatsak izango, baizik eta pobreak:

“Egitateak neska, nerabe eta emakumeak txirotasun-tasa altuak dituzten munduko erregioetan kokatzen dituzte, emakumeenganako mespretxu kulturetan eta familia kontsumoa areagotzeko desiragaz, trafiko sareekiko “eman eta saldu” egoeran kokatuz”. (ibidem)

BRUCKERT⁴¹en arabera, pobrezia-egoeratik, langabezia-egoeratik, gizarte-mugikortasuna bilatzetik edo, kasu askotan, familiari pobrezia-egoeratik ateratzeko nahiaz Trataren sareek aprobeza ditzaketen zaurgarritasun-baldintzak dira⁴². Horregatik, zalantzan jarri beharko lirakeke munduko baliabideek eta txostenek (bai Nazio Batuek, bai Estatu Batuetako Estatu Departamentuak edo Migrazioetarako Nazioarteko Erakundeak⁴³) eskaintzen duten salerosketaren kontakizun asko; izan ere,

⁴⁰ EEUU/Departamento de Estado(USAID): *TIP* 2006, EEUU.

⁴¹ Chris Bruckert Ottawako Unibertsitateko irakasle titularra da, Kriminologia Sailean. Azken 20 urteetan, bere lanaren zati handi bat sexuaren industriako hainbat sektore aztertzen zentratu da; horretarako, ikerketa kualitatibo bat egin du kaleko sexu-lanari, dantza erotikoari, telefono-deien sektoreari, eskortei, bezeroei, gizonezko sexu-langileei eta salerosketari buruz.

⁴² BRUCKERT, C.: *Trafficking in Human Beings and Organized Crime: A Literature Review*. University of Ottawa, 2002.

⁴³ Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea gobernuen arteko erakundea da, 1951n sortua, eta migrazioen problematikaz arduratzen da. Genevan du egoitza, eta 100 herrialdetan baino gehiagotan ditu bulegoak.

pobreziatik ihes egiteko, kanpoko lan-eskaintza bat onartzen duen emakume-profila⁴⁴ eskaintzen dute, hizkuntza ezagutu gabe eta etorkizuneko baldintzak egiaztatu gabe.

Trataren ustezko biktimek ez dute bide judizialik hartuko, egoera oso ahulean iristen baitira, eta ez dituzte baliabide nahikorik ezta aukerarik baliabide horiek egikaritzeko. Biktimaren profil hori errealitate bat da; hala ere, arazo bat dago: informazio horretatik profil bakarra ematen da, eta beste egoera batzuetan ematen direnean, biktimak identifikatzeko zailtasunak sor ditzakete. CHUANG⁴⁵ek ohartarazi du salerosketaren kasu gehienak porrot egindako lan-migrazioa kasuak direla, eta hauxe argitu du:

“Boterearen parekotasuna desagertzen doa, mundu-mailako ekonomiak estatuko eta estatuen arteko migrazioak areagotu dituztelako, herrialde eta komunitate txiroenetan mantenua desagertzearen ondorioz⁴⁶”.

Beraz, emakumeak objektu gisa hautematea funtsezkoa dirudi pertsonen salerosketaren delitua gertatu dela ulertzeko. Feminismoen barruan, askotan landu izan da emakumeen objektibizazioa⁴⁷, hau da, emakumeak beren giza izaera hustea, objektu bihurtuz, kanporatzea. Normalean, kultura-industriaren analogian eta baita

⁴⁴ Ez dago profil bakar bat trataren biktimarentzat. “edozein izan daiteke biktima. Hala ere, agerian geratu da talde ahulena emakumeak, haurrak direla, batez ere, sexu-esplotazioaz, zortasunaz eta ekonomia-ustiapeneko sektore batzuez hitz egiten denean, hala nola etxeko lanaz, nekazaritzaz edo makillajeaz..” Ikusi: OIM.: *Trata de personas: aspectos básicos*. México: OIM/CIM/INM/INN, 2006, 24. or.

⁴⁵ Janie Chuang Washingtongo Unibertsitate Amerikarreko zuzenbideko irakaslea da, Nazioarteko Zuzenbidearen, gizakion salerosketaren eta lan-migrazioaren arloetan irakasten eta idazten duena.

⁴⁶ CHUANG, Janie. Beyond a snapshot: Preventing human trafficking in the global economy. *Global Legal Studies*, 2006, vol. 13, 1.go zbk., 137.-163. or.

⁴⁷ Emakumeen objektibizazioa, edo bestela esanda, emakumearen kosifikazioa, emakumea tresna soil gisa tratatzea da. Honek, gizatasuna kentzen die emakumeei, eta nahi bezala erakutsi, ustiatu eta erabil daitezkeen objektu ez-pentsakor gisa erakusten ditu. Horrela, ohikoa da emakumea hedabideetan (publizitatean) biluzik ikustea, jantzitako gizonaren aurrean; haurrak dituzten emakumeak edo mendetasun edo zaurgarritasun egoeran daudenak, kanpoko plazeraren objektu pasibo huts gisa.

Estatuarekiko harremanetan ere, Catherine MacKinnon⁴⁸ eta Andrea Dworkin⁴⁹ feministen lanean ikus daitekeenez.

Behin emakumezkoen salerosketaren arrazoi nagusia ulertuta (egoera soziala), horren helburu nagusia (sexu esplotazioa) aztertzen hasiko da.

B. SEXU ESPLATAZIOA

Aurretik esandako guztiari, alde batetik, genero-bereizkeria/emakumeen diskriminazioa eta emakumearen aurkako indarkeria sortzen dituzten, gizonen eta emakumeen arteko harremanen desberdintasun handiak⁵⁰, eta bestetik, gizonen sexualitatearen eredu hegemonikoa gehitu ezker, emakumezkoen salerosketari helburu zehatza ematen zaio, sexu esplotazioa hain zuzen, emakumea objektu sexual gisa ikusten baita. Jarraian, bi faktore hauek, sexu esplotazioaren arrazoia posible bezala aztertuko dira:

⁴⁸ Catharine Alice MacKinnon legelari akademikoa, abokatua, irakaslea, idazlea eta feminismo erradikalaren ekintzaile amerikarra da. Genero berdintasunean espezializatuta, nazioarteko eta konstituzioko zuzenbidean eta teoria politiko eta legalean, sexu-jazarpenaren aurkako legeria erreklamatzearen aitzindaria izan zen, eta Andrea Dworkin-ekin batera pornografia eskubide zibilen urratze gisa onartzen zuten ordenantzak sortu zituen.

⁴⁹ Andrea Rita Dworkin AEBetako ekintzaile eta idazle feminista erradikala izan zen. Pornografiari egiten dion kritikagatik da ezaguna. Bakarkako dozena bat liburu idatzi zituen: bederatzi ez-fikziozkoak, bi eleberrri eta ipuin bilduma bat.

⁵⁰ Honi buruz, Emakumearen aurkako indarkeriari buruzko Kontalari Bereziak honako hau dio: "Emakumearen eskubide falta da migrazioaren eta emakumeen salerosketaren eragile nagusia. Eskubide horiek ezinbestean konstituzioetan, legeetan eta politiketan azaltzen diren arren, emakumeek ez dute herritartasun osoa, gobernuek ez baitituzte beren eskubideak babesten edo sustatzen. (...) Bereizkeria-modu muturrekoena eta nabarmenena indarkeria fisikoa eta psikologikoa da. Indarkeria bereizkeriaren egiturak indartzeko eta emakumearen eguneroko diskriminazio modu gogaikarri eta sotilak indartzeko tresna da Indarkeria bereizkeriaren egiturak indartzeko eta emakumearen eguneroko diskriminazio modu gogaikarri eta sotilak indartzeko tresna da. Beren eskubide zibil, politiko, ekonomiko edo sozialak ez babestera eta sustatzera, gobernuek salerosketan aurrera egiteko egoerak sortzen dituzte." Ikusi: Nazio Batuak, E/CN./2000/68.

a) HEZIKETA DESBERDINAK

Horren erakusgarri da Karina García Reyes mexikarraren doktorego-tesia; 33 elkarrizketa egiten dizkie droga-trafikatzaile exnarkotrafikatzaileei, eta horietatik %6a pertsona-trafikatzaile gisa aritzen zen. Azaltzen digu:

“Diskurtso horretan [elkarrizketaz ari dela], onartzen da, halaber, benetako gizakiak ezin dituela erakutsi bere beldurrak, emozioak eta ahuleziak, eta hori egiteko modurik onena lurralde guztietan indarra eta nagusitasuna erakustea dela: lagunartean, talde lehiakideak dituzten borroketan eta etxeetan, familiekin (García, 2020)”.⁵¹

Hau ulertzeko, beharrezkoa da emakumezko eta gizonezkoen heziketak bereiztea, gizartearen funtzionamendua ulertzeko helburuaz.

i. EMAKUMEZKOAK

Ikuspuntu biologiko bakun batetik ikusita, emakumeen gorputzaren kontrola eta haren ugaltzeko gaitasuna funtsezkoak dira, gizartea eusteko. Horrek emakumezkoen kontrolera eramaten du, sistema patriarkalaren eredia eutsiz.

Gainera, historikoki ukatu egin da emakumeen sexualitatea plazerrarekin lotuta dagoela, ugalketa-funtziora mugatu baitute. Nina Parrónek dioenez:

“banatu gintuzten emakume on, ondorengo legal eta kultu erlijiosoari dedikatu behar zirenak, eta emakume txarren, gizonezkoari plazerra ematea helburu bezala zutenak inolako ardura erakarriz, artean ”.

Izan ere, UNODC emandako datu ofizialen arabera, munduko gizakion salerosketaren %80a sexu esplotaziorako burutzen dira eta, portzentaje honetako %90a, emakumeak eta neskek dira⁵².

Aitzitik, nolana ere, emakumezkoaren sexualitatea gizonaren plazerra lortzea edo ematearekin lotu izan da. Bestela esanda, gizonezkoen sexualitatea plazerrarekin eta

⁵¹ GARCIA REYES, KARINA. *“Pobreza, género y violencia en las narrativas de 33 ex narcos: entendiendo la violencia del tráfico de drogas en México”*. 2018, México.

⁵² UNODC, *Global Report on Trafficking in Persons, 2018*, Nueva York.

sexu-bulkada irrazionalarekin lotuta egon da.

ii. GIZONEZKOAK

Genero teoriak behin eta berriz azaldu dutenez, maskulinitasuna ez da gorputz sexuatu batean endosaturik agertzen, baizik eta eraikuntza bat da; joera batzuek alderdi psikosozialari garrantzi handiagoa ematen diote eta, beste batzuek, alderdi soziokulturalari. Haren alderdi hegemonikoaren ezaugarri bat emakumeengan da, baina, batez ere, beste gizon batzuegan, behin eta berriz errepikatzen dena. Coral Herrerak Elisabeth Badinterri⁵³ erreferentzia egiten dio:

“Gizonezkoa izatea femeninoa ez izatea esan nahi du, homosexual ez izatea, otzan ez izatea, menpeko edo sumiso, afeminatua ez izatea, beste gizonezkoekin harreman sexual edo harreman oso intimo, eta batez ere, emakuzmezekoekin inpotente ez izatea”. (Badinter en Herrera, 2011: 182)

Horri biolentziaren erabileraren faktorea gehitu daiteke. Izan ere, Michel Kauffmanek⁵⁴ 1989an *Hombres* izeneko testuan ilustratu zuen. Plazera, boterea eta aldaketa:

“Edozein gizonezko, adin oso goiz batetik, haien maskulinitasunaren inguruko egiaztasunaz zenbait duda gordetzen ditu (...) konfirmatzeko modurik eraginkorra gizontasun probekaz da (hala nola, gudak, borrokak eta kompetentzia modu sofistikatueguz) eta bere kontrako erreflexu bezala,

⁵³ Élisabeth Badinter filosofo feminista frantsesa, historialaria eta negozio-emakumea da. Parisko École Polytechnicon filosofiako irakaslea da. Bere lana feminismoari eta emakumeek gizartean duten posizioari buruzko gogoeta filosofikoetan zentratu da, eta emakume etorkinen egoeraz arduratu dabereziki.

⁵⁴ Michael Kaufman nazioarteko aditu ezaguna da gizonen berdintasunaren aldeko lanean. Lazo Zuriaren Kanpainaren sortzaileetako bat izan zen (Kanadan 1991n sortutako mundu mailako oihartzun-kanpaina, gizonezkoak emakumeenganako indarkeriaren aurka inplikatzeko), Promundo Institutuko ikertzailea eta MenCareko kidea. Ekimen hori 35 urte baino gehiagotan garatu zen, gizonak pertsonen zainketan aktiboki parte hartzeko asmoz. Kaufman Bilboko Emakunderen esparruan egindako jardunaldi batean parte hartu zuen, non berdintasunaren aldeko gizonekin egindako lanari buruzko nazioarteko jarraibide eta esperientziei buruz hitz egin zuen.

feminitatea". (Kauffman, 1989: 92)

Beraz, ikusten den moduan, emakume zein gizonezkoek haien heziketan izan dituzten ezberdintasunak, ondorioztatu dira, gizarteak antzinatik bizi izan duen eta hurrengo puntuan azalduko den genero indarkeriagaz.

b) GENERO-INDARKERIA

Ikusten dugunez, beraz, identitate maskulino baten gizarte-eraikuntza beste identitate ahulago batzuen gaineko indarra gauzatzearekin lotuta dago, hunkiberatasuna ukatzearekin eta beldurra erakustearekin batera, hala, genero batekoa izatearen eskakizun bihurtzen da.

Kaufmanen "lehiakideen prestakuntza sofistikuago" hitzordua berreskuratuz, baldin eta botere handiena duena, aberastasun edo indarraren bidez, edo biak, handiena bada, eta hori etengabe frogatu behar du.

Maskulinitasun hegemoniko⁵⁵ bezalatzat definitu daitekeen ezaugarri horren aurrean, garrantzitsua da klase-ikuspegia sartzea, hau da, ondasun materialak eta kapitala eskuratzea, dela klasekoa delako, dela legez kanpoko jardueren bidez azkar iristen delako. Era berean, beste toki batzuk ere badaude boterea adierazteko, mundu-sistemaren logikaren barruan. Nabarmendu beharreko beste osagai bat da, identitate maskulino hori eraikitzeo, emakumeen identitatearen eraikuntzaren aurka egotea.

Bestela esanda, emakumeak saltzen, merkaturatzen, trukutzen edota merkataritzan aritzen diren gizonezkoek, arrakasta handia emateaz gain, baita maskulinitasun hori zeharkatzen duen subjektibotasun bat dagoelako, eta, hala berresteko, bere kontraparte femeninoa behegoko gisa ikusi behar duelako, hainbeste esklabo, ez gizatiarra.

⁵⁵ Maskulinitasun hegemonikoa, R. W. Connell-ek proposaturiko kontzeptua, genero maskulino adierazteko modu konkretu bat da, patriarkatuari zilegitasuna ematen diona; hau da, gizonen nagusitasunezko posizioa eta emakumeen menderakuntza bermatzen duena (edo bermatzeko hartzen dena). Kontzeptualki, maskulinitasun hegemonikoak proposatzen du azaltzea gizonek nola eta zergatik mantentzen dituzten emakumeen gaineko gizarte-rol nagusiak, eta beste genero-identitate batzuk, gizarte jakin batean "femeninotzat" hartzen direnak.

Emakumeen aurkako indarkeriaren beste adierazpen batzuen artean, emakumeen sexu-esplotazioaren ezaugarria da gizonak emakumeengan dituzten menderatze- eta esplotazio-harremanak, aurreko puntuetan aipaturiko patriarkatuaren balio tradizionaletan oinarritutako desberdintasun-harremanak. Dakigunez, balio horiek gizonen eta emakumeen identitatea eratzen laguntzen dute, estereotipo faltsuak erabiliz eta emakumei eta gizoni rol desberdinak esleituz.

Horregatik esan daiteke salerosketa genero-nekropolitika baten adierazpena dela, eta, emakumeen bizitzari buruz erabakitzean, haien subiranotasuna kentzen diela eta autonomia fisikoa, ekonomikoa eta politikoa kentzen diela.

Modu honetan, gizonezko eta emakumezkoen arteko jatorri-bereizkeriatik eta prostituzioan ari diren pertsona gehienak emakumezkoak eta prostituzioa gehien kontsumitzen dutenak, berriz, gizonak direlaren errealitate sozialetik abiatuta, sexu-esplotaziorako emakumeen salerosketa **genero-indarkeriaren** modu bat dela esan genezake.

Modu honetan, azaldu da sexu esplotazioa garrantzizko arazoa dela emakumezkoaren salerosketaren helbururik nagusia baita, eta ondorioz, gizakion salerosketa osoaren praktika handia. Behin hau azalduta, sexu esplotazioak prostituzioarekin izan dezakeen lotura aztertuko da.

3. PROSTITUZIOA

Prostituzioan, emakumea objektu sexual gisa antzemateen da lan-aktibitate bat balitz bezala. Hala ere, emakumeen objektibizazioa, aurretik aipatu bezala, ez da gauza berria, eta Rubin-ek⁵⁶ oso irudimen handiz iragarri zuen: emakumeak, beren gorputzak, irudiak edo irudikapenak ez ezik, beren gizateria ere perbertsio beldurgarria jasaten dute, merkaturatuak, itzuliak, globalizazioa eta neoliberalismoa dela eta. Horri

⁵⁶ Gayle Rubin Estatu Batuetako kultura-antropologoa da, eta sexu- eta genero-politiketan eragina duen aktibista eta teoriko ezagunetakoa da. Hainbat gai buruz idatzi du: feminismoa, sadomasokismoa, prostituzioa, pedofilia, pornografia eta lesbiana literatura, eta azpikultura sexualei buruzko ikerketa antropologikoak eta istorioak, bereziki hiri-inguruneetan. Antropologiako irakasle elkartua da, emakumeen ikasketak eta literatura konparatua Michigango Unibertsitatean (Ann Arbor).

dagokionez, Rosa Cobo⁵⁷ teoria feministak, *La prostitución en el corazón del capitalismo* liburuan, hau dio:

“Globalizazio neoliberala eta estatuen partezko merkatu-kontrol faltak eragin du sexu-industria areagotu eta mundu-mailako ekonomia kriminalaren garapena erraztea. Faktore hauen gehiketak eragiten du milioi neska eta emakumezkoak industria honetarako [sexu-industria] merkantzia bihurtzea munduko gizonezkoen erabilera sexualerako”⁵⁸.

Sexu-esplotazioa helburu duten emakumeen salerosketa eta prostituzioa elkarri estu lotutako bi fenomeno direla kontuan harturik, -kontuan hartuz Europar Batasuneko trataren biktimen %77a emakumeak eta neskak direla⁵⁹-, uste da banandu ezin direla, kontuan hartuz prostituzioan aritzen diren emakumeen %95a sexu-esplotazioko emakumeen salerosketaren biktima direla kalkulatzeko baita; eta beraz, gainerako %5a bakarrik izango liratekeela “sexu-langile aske eta boluntarioak”⁶⁰. Beraz, prostituzioa emakumeen salerosketaren helburu nagusia denez, haren erregulazioa defendatzeak salerosketaren fenomeno-delituari eusten laguntzea dakar, emakumeen aurkako indarkeria legitimatzeaz gain.

Prostituzioa definitzea konplexuagoa da, definizio ugari daudelako eta haien artean desberdintasun ugari, fenomenoaren aurrean hartzen den jarreraren arabera. Hauek dira definizio batzuk⁶¹:

- *Gizonei diruaren truke eta ez plazerraren truke entregatzen diren emakumeak.*

⁵⁷ Rosa Cobo Bedía, Espainiako teorialari, ikertzaile eta idazle feminista da. Coruñaiko Unibertsitateko Genero Soziologiako irakasle titularra da eta unibertsitate bereko Genero eta Feminista Ikasketen Zentroko zuzendaria.

⁵⁸ COBO, Rosa. *La prostitución en el corazón del capitalismo*. Los libros de la catarata, 2021. 140.-165. or.

⁵⁹ EU, *Data collection on trafficking in human beings in the EU*, 2018, Lancaster University

⁶⁰ GUTIÉRREZ IBÁN, María Encina. “*La prostitución, al igual que otros instintos de explotación, aparece cuando las condiciones económicas y de reparto desigual del poder lo permiten*”. T.E. Castilla y León, nº 312, abril 2010, 12. eta 13. orr.

⁶¹ POYATOS I MATAS, Glòria. *La prostitución como trabajo autónomo*. Barcelona: Bosh, 2009, 8. eta 9.or.

- *Emakumeak edozein gizonekin duen ohiko kopulazioa, mertzenarioa.*
- *Pertsona kopuru zehaztugabea (nahiz eta aukeratua izan) berezko prestazioak izatea. Ohikotasuna, irabazi asmoaren ondoriozkoa izan arren, bizio hutsetik erator daiteke.*
- *Berez, bere xarmaz bizi den emakume oro, hau da, iristen den lehenari diruaren truke entregatzen dena, prostituta bat da.*

Horren ondorioz, Espainiako Errege Akademia⁶²-ra joko ezker, prostituzioa honela definituko litzateke: *“Diru truk, beste pertsona batzuekin harreman sexualak izatera dedikatzen den aktibitatea”*

Orokorrean, Espainiako Errege Akademiaren definizioa ontzat hartu ezker, prostituzioa hiru irizpideren bidez definitu daiteke: *“sexu-harremanak, ordainsaria, eta aktibitatearen ohikotasuna edo errepikakortasuna”*⁶³.

Hala ere, sakonduz, antolatu gabeko eta antolaturiko prostituzioa desberdindu daiteke. Alde batetik, prostituzio antolatu gabea, prostituzioan aritzen diren pertsonak ez dut proxenetismo zuzeneko figurarik bere jardunean, eta ez dute prostituzioa testuinguru antolatu batean gauzatzen. Beste alde batetik, antolaturiko prostituzioa, berriz, egitura bati esker antolatzen eta gauzatzen den prostituzioa da⁶⁴. Mota hau polemikoago da, gure herrialdean proxenetismo delitutzat hartzen baita, Zigor Kode⁶⁵-an jasota, 188. artikuluan:

“Norbaitek, indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun-zein beharrizan-egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatuz, adin nagusikoa prostituzioan jardutera edo horretan irautera derrigortzen badu, orduan, pertsona horri bi urtetik lau arteko espetxealdi-zigorra eta hamabi

⁶² Espainiako Errege Akademia Espainiako kultura-erakunde pribatua da, funts publikoekin finantzatua. Madril du egoitza, eta hizkuntza-erregularizazioan dihardu, araudiak aldarrikatuz.

⁶³ DAYRAS, Michèle. *“Prostitución, pornografía y tráfico de mujeres”* (en línea). Ciudad de Mujeres: 16 de junio de 2006, 1.º or.

⁶⁴ GUILLÓ GIRARD, Clara Inés (Coord.). *La prostitución en la Comunidad Autónoma de Andalucía*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer, 2005, 39. or.

⁶⁵ Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa, 1996ko maiatzaren 25az geroztik indarrean dagoen Espainiako Zigor Kodean.

hilabetetik hogeita lau arteko isuna ezarriko zaizkio. Zigor bera ezarriko zaio inoren prostituzioa ustiatzetik irabaziak ateratzen dituenari, nahiz eta prostituzioan ari denak horretarako adostasuna eman”.

Modu honetan, agerian utzi da, sexu esplotazioa eta prostituzioaren arteko lotura. Horrez gain, argi dago gizonek emakumearekiko duten ikuspegia funtsezkoa dela prostituzioa gertatzeko, izan ere, eskari barik ez legoke eskaintza. Gauzak horrela, jarraian zuzenbidezko oinarriak aurkeztuko dira, prostituzioaren gutxipenarekin eta gizonen hezkuntza aldaketarekin, nola emakumezkoen eta beraz, gizakion salerosketaren problematika hobetuko lirartekeen planteatzeko.

III. LEGEDIAREN GARAPENA

Sarritan, pertsonen salerosketa esklabotzarekin konparatzen da, eta “esklabutza modu modernotzat” hartzen da baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsona askorentzat. Esteban Pérez Alonso, zigor zuzenbideko Granadako unibertsitatearen irakasleak hurrengoia esaten du: *”gauza bat praktikatzea, sustatzea edo bere existentziaren berri izatea da, eta beste oso desberdin bat, publikoki ezagutzea da. Gure gizarte modernoetan itxuren kulturaren bizitzaren jarraitzen dugu”*⁶⁶.

Izan ere, duela urte gutxi arte ia ez zen pertsonen salerosketaren aurka borrokatzen, eta horregatik eskatzen zaie estatuei aspaldiko mendeetan esklabotasun klasikoarekiko eskatzen zen erronka bera: lehenik eta behin arazoaren larritasuna eta ondorioak onartzea, gizarteko gaitz hori desagerrarazteko neurriak hartu ahal izateko, mafiako kideek salerosketaz baliatu ez daitezten.

1. LEGEDIAREN GARAPENA MUNDU MAILAN

1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa⁶⁷, Giza Eskubideei begiratu aurrerapauso handia izan zen, baina aitorpen horretatik bi talde kanpoan

⁶⁶ PÉREZ ALONSO, Esteban. *Tráfico de personas e inmigración clandestina*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2008, 38. or.

⁶⁷ Frantziako Asanblada Nazional Konstituziogileak 1789ko abuztuaren 26an onetsi zuen 1789ko Gizakiaren eta Herritarraren Eskubideen Deklarazioa. Iraultza Frantsesaren funtsezko dokumentuetako bat da, pertsonalak eta komunitatekoak definitzeari dagokionez, unibertsalez gain.

gelditu ziren, esklaboak eta emakumezkoak, zeren eta, esklaboak ez ziren “gizonak”; eta emakumeak, ez ziren hiritartzat hartzen (eskubideak eta betebeharrak zituzten subjektuak baizik).

Esklabotzaren praktika ez zen debekatu 1833 arte Erresuma Batuan, 1865 arte AEBn eta 1880 urterarte Espainian. Emakumeek, aldiz, ez ziren XX. mendera arte hiritar gisa onartua izan munduko herrialde gehienetan⁶⁸.

XIX. mendean gizakion salerosketa erreprimitzeko lehenengo nazioarteko instrumentua burutzen da, 1914an, Ingalaterraren eta Frantziaren artean (Pariseko Tratua⁶⁹). Hala ere, Afrikako esklabotzaren inguruan gizakiak saltzeari soilik egiten zion erreferentzia⁷⁰.

1904ko maiatzaren 18an, Parisen, “Emakumezkoen salerosketa” izeneko Trafiko Kriminalaren aurkako Babes Eraginkorra Ziurtatzeko Nazioarteko Akordioa⁷¹ sinatu zen. Bertan, “Emakumeak hiltorian egotera eramaten zituztenak” ikertzeko gobernuek hartu behar zuten konpromisoa aipatzen zen eta, 1910. urtean, lehen aldiz proposatu ziren zigor horri buruzko xedapenak. Espainia 1924an gehitu zen.

1948ko abenduaren 10ean, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sinatzen da. Era berean, 1966an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna⁷² eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna⁷³

⁶⁸ PAIS RODRÍGUEZ, Ramón; REBOLLO DELGADO, Lucrecio. *Introducción al Derecho I: Derecho Público*. Madrid: Dykinson, S.L., 2005, 97 eta 98. or.

⁶⁹ Parisko Ituna 1814ko maiatzaren 30ean sinatu zen, eta horren bidez Frantziaren eta Seigarren Koalizioaren arteko gerra amaitu zen, Erresuma Batuak, Errusiak, Espainiak, Austriak, Suediak, Portugalek eta Prusiak osatua.

⁷⁰ FEDERACIÓN DE MUJERES PROGRESISTAS. *Trata de mujeres con fines de explotación sexual en España: estudio exploratorio*. Madrid: 2008, 85. or.

⁷¹ Emakumezkoen salerosketa izeneko trafiko kriminalaren aurkako babes eraginkorra ziurtatzeko nazioarteko akordioa aldatzen duen protokoloa, Parisen 1904ko maiatzaren 18an sinatua.

